



**2014KO OTSAILAREN 7KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko otsailaren zazpian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2014ko urtarrilaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 89 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HAMAR MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMO (110.975,65 €)takoa eta 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 3 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMAHIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA HAMABI ZENTIMO (13.999,32 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 14-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 225 € ematea urtarriletik abendura eta mantenimentu gastuetarako hilean 41,63 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %90a da.
- 13-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimentu gastuetarako 2013. urtean eskatutako laguntzaren zenbatekoari dagozkion atzerapenak ordaintzea, hilean 46,25 € maiatzetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 13-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 232,5 € eta mantenimentu gastuetarako hilean 43,02 € ematea, urtarriletik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren %93a da.

Drogomendekotasuna garraio laguntza.-



- 14-14-001 zbk.dun esped.: Gizakia Helburura joateko 94,25 € ematea hilero, dagozki-on atzerapenak ordainduz urtarrilaren 14tik.

Presoen familientzat garraio laguntza.-

- 12-13-01 zbk.dun esped.: bere senitarteko bat preso dagoela eta, bidaietarako 58,61 € ematea hilero.
- 12-13-03 zbk.dun esped.: bere senitarteko bat preso dagoela eta, bidaietarako 137,36 € ematea hilero.

Goierri indarkeria matxista jasaten duten emakumeen egoera ezagutzeko diagnostiko eta arreta eta koordinaziorako protokoloa diseinatzeko prozesuari dirulaguntza.-

- Goierri indarkeria matxista jasaten duten emakumeen egoera ezagutzeko diagnostiko, arreta eta koordinaziorako protokoloa diseinatzeko 2.359,87 €ko dirulaguntza ematea. Lan hau Goierriko udalerriekin elkarlanean gauzatuko da eta gastuen banaketari dagokionez, herri bakoitzak duen biztanle kopuruaren arabera egin da. Ordainketa Ordiziako Udalari egingo zaio.

IV.- 2013KO BASHERRI EGUNERAKO DIRULAGUNTZA OSAGARRIA.-

Ingurumen eta Lehen Sektoreko batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartzen du:

2013ko Basherrri Egunaren dirulaguntzak banatzeko garaian, lehen onartutako proposamenean hutsegitea atzemanik, eta hori konpontzeko, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako bi dirulaguntza hauek onartzen ditu:

- Enpaundi baserriko Juan Jose Garini 50,00 € Basherrri Egunean Udaletxe azpian jarritako postuarengatik.
- Borda Berriko Isidro Sukiari 39,30 € Basherrri Egunean pintxoak egiteko erabilitako gaztengatik.

V.- SAN BENITO IKASTOLARI TEILATUA KONPONTZEKO DIRULAGUNTZA.-

Udal honek dirulaguntza aurreikusita dauka San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren teilatuaren konponketarako.

San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren teilatuaren konponketa gaur egun eraikinaren erabiltzailea den San Benito Ikastolak egin du eta egindako gastuaren zurigarririk eka-ri ditu, udal honek dirulaguntzaren ordainketa egin dakion.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guzti- en aldeko botuekin, San Benito Ikastolari, San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren teilatua- ren konponketagatik, HOGEITA LAU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA LAU ZENTIMO (24.578,04 €) dirulaguntza ematea erabakitzen du.



VI.- (2013 - 2017) V. PLANGINTZALDIRAKO LAZKAOKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ONARTZEKO PROPOSAMENA.-

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak, (2013 - 2017) V. plangintzaldirako Lazkaoko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana onartzeko aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du. Plan hau bere espedientean dago.

VII.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Autoa eta motorra gidatzeko baimenaren azterketa teorikoa euskaraz ateratzeagatik dirulaguntza.-

Lazkaoko Udalak dirulaguntza aurreikusi zuen 2013ko aurrekontuan, autoa eta motorra gidatzeko baimenaren azterketa teorikoa euskaraz ateratzeagatik.

Kontutan izanda aurrekontuan jarritako dirua 2.100 € dela eta ezarritako baldintzak betetzen dituztenak 16 lagun direla, bere espedientean azaltzen den zerrendaren arabera, bakoitzari 131,25 € ematea.

2013ko irailetik abendura bitarteko Mintzalaguna proiektuari dirulaguntza.-

Goierriko Euskal Eskolak bideratzen duen Mintzalaguna proiektuari, 2013ko irailetik abendura bitarteko epeari dagokion BOST MILA EURO (5.000 €) ematea.

VIII.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gerriko Liburudendari dirulaguntza euskal liburu eta diska azokaren antolaketarengatik.-

2013ko abenduaren 13, 14 eta 15ean egindako XXV. Euskal Liburu eta Diska Azokarengatik, Gerriko Liburudenda S.L.ri saldutako kopuruaren %15ren pareko dirulaguntza ematea, hau da, MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMABI ZENTIMO (1.964,72 €).

Antsoategi Elkarteari Gipuzkoako Astoen Lehiaketa eta Erakusketaren antolaketagatik dirulaguntza.-

Antsoategi Elkarteari, 2014ko urtarrilaren 12an egindako Gipuzkoako Astoen Lehiaketa eta Erakusketaren antolaketarengatik, LAU MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST EURO (4.875 €)ko dirulaguntza onartzea.

Kontutan izanda 2.500 € aurreratu zitzaiera, orain ematekoa 2.375 € izango litzateke.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-



Estensoro zinegotziak (EAJ) Goierri Beheko Industrialdea S.A.ren birrantolaketari buruzko informazioa eskatzen dio alkateari.

Alkateak eskatutako informazioa ematen dio.

Estensoro zinegotziak Ordizia-Lazkao oinezko bideari buruz galdetzen dio baita ere eta alkateak erantzun egiten dio baita ere.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hiru eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]